

[b]

**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

635. zkia.

XV. urtea

2007ko azaroaren 23a

Jose Antonio Osoro "Katxo", 50 urte bandan

**"Hasierako ilusio  
berbera dut"**

Argazkia: Azkue



# JOSTAILUEN ERAKUSKETA GIDATUA


Kultur Etxeko sotoan  
**Sarrera doakoa**

Azaroa 23tik 26ra  
Barixakua eta astelehena 17:00 - 20:00  
Zapatua eta domeka 11:00 - 14:00

Birziklatuz **JOSTAILUAK SORTU** tailerra  
(haurrei zuzendua)  
Materialak birziklatuz jostailuak sortuko dituzte

Azaroak 24, zapatua 12:00 - 13:30  
Azaroak 26, astelehena 17:30 - 19:00  
Doako tailerra izango da

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



**RENAULT**  
vehiculos comerciales

Zuk beste sinisten dugu zure negozioan eta lagundu egin nahi zaitugu.  
Azken belaunaldiko injezio zuzeneko motor potenteagoak.

Kangoo

Trafic

Master



Autonomo edo enpresaria bazara gure ibilgailu komertzial guztietan:

• %23ko deskontua\*.

• Finantziazio baldintza bikainak\*.

\* Autonomo eta enpresarietako eskaintza berezia 07-11-30 arte. Ezin zate beste promozioei gehitu. Ruxten diren modeluak: Kangoo Express Comfort, Trafic Furgoneta Librama Normala eta altzuzako Master Furgoneta Erakua. Renault ibilgailu komertzialen kategorian: konsumo mixto (l/100) 5,3/6,8/9ra. CO<sub>2</sub> isurketa (gr/km) 130/16/235era.



RENAULT  
**AUTOBERRI**

ARRASATE - AZPEITIA - ELGOIBAR - IRUIN - TOLOSA



SARE GURRUTXAGA

Aurrekoan eskolarako lan bat egiten ari nintzela, milurteko zortzi helburuekin egin nian topo. Helburu horiek 2000. urtean sinatu zitiztean munduko 189 Estaturik. Guztiak 2015erako erdiestea zuan itun honen hasierako plana.

Helburuak oso orokorrak izan arren sarkontasun handikoak dituk, hala nola, pobrezia eta gosea errotik ateratzea, lehen hezkuntza mundu guztian bermatzea, genero berdintasuna eta emakumearen autonomia sustatzea, umeen hilkortasuna gutxitzea, amaren osasuna hobetzea, GIB/HIES, paludismoa eta beste gaixotasun batzuekin bukatzea, ingurugiroaren iraunkortasuna bermatzea eta garapenerako konpromisua munduan piztea.

Hasieran hamabost urtek epe luzea diruditen arren, erdia ia pasatu duk eta nik ez zekiat epe luzea motz ez ote den geratuko. Zazpi urte pasa dituk eta datuak ez zekizkiat, baina gosea bazagok munduan eta asko, umeak hiltzen jarraitzen dituk, aldaketa klimatikoa egunero duk hizpide eta zer esan genero berdintasunari buruz!! Helburuak jartzeari eguneroko kontua izaten duk guztiongan: hau edo hura egingo diat, edo hara joango nauk, edo bestea utziko diat. Baina benetan lortzeko beraietan benetan sinistu beharra zagok. Eta sinisten al dik munduak edo mundutarrak helburu hoiak lortzeko eman beharreko aldaketetan? Sinisten al diagu? Epeak epe eta denbora... aurrera.

## ZOZOAK BELEARI...



AITZOL GARMENDIA

Esaten dituen helburu jakin batek, definitioz, ondorengo osagarriak eduki behar dituela. Alde batetik kualitatiboki ambizioz bat, hau da betegarria behar din izan baina aldi berean erronka bat. Beste alde batetik kuantitatiboki zehaztea ere beharrezkoa dun. Bestela, nola baloratu helburuak betetzen diren edo ez, zenbatera gauden etab. Aipatu ditun bariabla makroekonomiko-sozialen itxura txarra ikusita bi izan zitezkeen lehen hausnarketak definizio honen gainean. Lehena kualitatiboki helburuak ondo formulatuak ez izana, hau da, zeren arabera neurtzen dinagu herrialde baten txirotasuna? PIBaren arabera, eta hau gaizki banatuta badago eta gutxi batzuren eskuetan badago sortzen den aberastasunaren gehiengoa?

Eta bigarrenez, zenbakiei so, denok ezagutzen ditinagu politiko, soziologo eta kazetarien abileziak joko hauetan. Izan ere indize eta indikadoreekin majo jokatzen baitituen komeni zaien erara, iturri hau edo hura hartuta, kalkuloak era honetara edo horretara eginda. Langabezia edo IPCaren kalkulua izaten ditun tipikoak. Baina orokorrean arrazoiak askoz ere barrurago zauden, ezta Sare? Ez al dun giza mentalitatearen erru sistematiko bat kausa? Batzuren aberastasuna, ongizatea eta segurtasuna beste batzuren kontura, gizonaren nagusitasuna emakumearen gainetik etab. Gizakia gizarteratu beharreko espeziea dun.

«Gosea  
bazagok  
munduan  
eta asko»

SARE

«Gizakia  
gizarteratu  
beharreko  
espeziea dun»

AITZOL

“ IDEALISMOA DA POLITIKAKO ZALDUNEK EUREN BOTERE-IRRIKA ESTALTZEKO ERABILTZEN DUTEN TOGA NOBLEA ”

Aldous Huxley







## TXALOK

• **Jausoro Plazan sei jarleku berri ipini dituzte:** "Aspaldi egin genuen eskaera eta, azkenean, Jausoro Plazan jarri dizkigute jarleku berriak. Oso dotore gelditu da. Eskerrik asko!"

• **Aurten 40 urte egin dituztenen bazkariaren antolatzaileek eskerak eman nahi dizkiete partehartzaile guztiei:** "Benetan eskerrezkoa da bazkariara etorri zineten guztion partaidetza eta, baita ere, zuen aldetik jaso genituen animoak. Antolatzaileak oso pozik gaude egindakoarekin eta lortutako emaitzarekin. 45 urte egiten ditugunean ere, ez dugu hutsik egingo; hala espero dugu behintzat, eta ziur egon ahalegin guztiak egingo ditugula horrelako beste egun bat antolatzeko. Mila esker guztioi, azken batean, zuek izan zarete hau guztia aurrera eramatearen arrazoia. Bost urte barri berriz elkar ikusiko dugulakoan, eskerrik asko".



## KEXAK

• **Plaza Txikitik Leku Ederrerako pasabide berria ilun dago:** "Duela gutxi asfaltatu dute pasabide hau, baina argiztapena falta da. Portal asko daude orain alde horretara eta, nire ustez, argi gehiago jarri behar da bide horretan".



• **Txalo bero bat Parrokiako koroari:** "Joan zen astean San Bartolome Parrokiako koroak abestu zuen mezatan eta, gure ustez, primeran, gainera. Aspaldian flojo samar zegoen koroa berri indarberri dela iruditu zitzaigun. Maila ederra eman zuten. Meza ondoren eskaini zuten kontzertua ere primerakoa izan zen. Izugarri gustatu zitzaigun. Segi horrela!"

Atal honetarako kexak, txalok edo galderak helarazteko:

**E-posta:** [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12



Elgoibarko  
Udala



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





## URRUZUNOREN *Luma*

### Inkisizioa euskararen etxaldean

The Wall Street Journal Estatu Batuetako kazeta ezagunak euskaldunoi eta euskarari buruzko artikulua bat plazaratu zuen azaro hasieran. Keith Johnson kazetari estatubatuarrek osagai hauek bildu ditu bere gogoetan: politika, euskaldunen bizimodu eta euskara. Politika kontuetan, zenbait alderditako ordezkariek euskaldun berriak direla argudiatuta, kazetariak dio Euskal Herrian euskara ikastera derrigortuta daudela herritarrek. Alegia, euskara politika-tresna gisa erabiltzen dugula. Eta hori lotuta, hainbat politikari euskaldun berriak izateak erakusten omen du, euskara orain ezarri nahi dela, eta beraz, ez dela beharrezkoa. Langile asko lanpostuak galtzeko zorian omen daude gainera gure artean, euskara ikasten ez badute. Euskara naturari buruzko dokumentaletarako baino ez omen da erabilgarria, eta zenbait "euskaldunen" aipuak jasota, Johnsonek dio euskara ez dela egokia, ezta eguneroko solasaldietarako ere. Amorrua baino gehiago barregura eman diit artikulua. Johnson jaunari makina bat gauza esango nioke. Esaterako, hainbat euskaldun 24 orduz euskaraz bizi garela, txikitatik. Inork behartu gabe, nahi dugulako, euskara komunikatzeko tresna aberatsa dela sinesten dugulako. Lanetan, kirolean, tabernetan, mendian... Zinez, merezi du artikulua irakurtzea. Atzeritar honek ez daki gure berri, edo bestela, ni ez naiz hemengoa.

*Ainhoa Lendinez*

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### UXUE ZABALETA

JOSTAILUEN TAILER  
GIDATUKOA

#### • Norentzat da erakusketa?

Guraso eta hezitzaileentzat. Umeek, gurasoek lagunduta, euskal merkatuan dauden produktuak ezagutzeko balio du.

#### Horrekin zer lortu nahi duzue?

Hezitzaile, guraso eta kontsumitzaileek jakitea zer produktu dauden merkatuan eta bakoitzaren funtzioak zeintzuk diren.

#### • Zer ikus daiteke?

Bi urtetik gorako guztiarentzako jolasak, jolas kooperatiboak eta jostailu digitalen txokoa. Euskal produktuak dauzkagu.

#### • Merkatuko jostailuak aztertu dituzue.

Jostailu on edo txarrik ez da. Kontua erabilera ona ematea da.

#### • Zer hartu behar da kontuan umeei jostailuak erosteko?

Jostailuaren ezaugarriak eta umearen ezaugarriak. Kontsumo gizarte honetan kritikoak izan behar dugu.

#### • Informazioa falta zaigu?

Eroskera bazoaz, lau panfleto ematen dizkizute. Gainera, ez dago euskal produkturik eta Durangora joan beharra ere...

#### • Gurasoek zer egin dezakete?

Begiak zabaldu eta kritikoak izan. Sustatu trukea, berrerebilpena, birziklaia... Produktu askorekin egin genezake jostailu bat.

#### • Besterik?

Euskarazko produktuak erostea garrantzitsua da.

**"Elgoibar asko maitte dot, eta Elgoibarko Musika Bandia, gehixago".**

Jose Antonio Osoro, Katxo



**Egin klik eta elkarrizketa irakurriko duzu!**

**www.elgoiBARREN.net**



## [AKORDATZEN NAIZ]



**ITZIAR AJURIA**

1924an jaioa

### «Bidaiak»

**B**errogeta hamar urte eukiko nittuan abioia lehenengo aldiz hartu nabanian. Oso gustora, bildurrik bat ere ez. Benidorrera juan nitzan. Abioian jarri, eta segittuan allegau. Esan nion illobari, "Mendarora ere abioian juango nitzake". Amak ez zidan iñora juten lagatzen. Beti kursillotara nixela esaten nion.

Gerora biaje asko egin ditut eta baten batek zeozer esaten badit, aman esana betetzen nabillela erantzuten diot. Izan ere, amak beti esaten zidan "ni hiltzen naitzenian juan hadi nahi donan lekura", hori zan beti bere erantzuna. Eta horixe egitten nabil; oin gitxiago. Operau berri juan nitzan Benidorrera, ama oindiokan bizi zan, haura izango zan nere lehenengo biija. Ospitalian egon nitzanian konpondu ziran ni gabe, eta aprobe txau egin naban, lkastolako kursillo batzuk naukazela esanda.

Leku askotan egon naiz: lau aldiz pasau dot Atlantikua, eta erdixan beste mordo baten geratu naiz, Azores eta ho-

lakuetan. Kanada, Mexiko, Kuba, Punta Cana... Gehixena, Kanada gustau jatan. Egun asko egon giñan orduan eta zora-garrixa da. Neretzako gauzarik ederrena da biacijzia. Oiñ, biacijak egin bai, baiña leku batera jun eta trunkil egoteko. Ibili bai, baiña kargia eruateko moduan ez nago. Kanadako biacijian maletero eta guzii geunkan. Autobusetik ur-

ten, eta mutillak hartzen zeben maletia: guk ezer ez genduan kargatzen. Europan ere gauza eder asko ikusi ditut.

Inglesa daukat asignatura pendiente moduan. Hamar urte gitxiago baneukaz hasiko nitzake ikasten, baiña oiñ ganbaria beteta daukat. Umetan ez zauan inglesa ikasteko aukerarik; gerora periodikuakin etorri ziran inglesezko fitxa danak batu nittuan baina neure kontura ikastia oso zailla da. Ordenadorian abisuak inglez urtetzen jataz askotan, eta gero "si o no" aukerau bihar, eta ez dot jakitzen zeri eman. Penia daukat, ez pentsau.



## [GURE BERBAK]

### Morfologia (10): NONDIK

Nundik kasu-markia landuko dogu gaurkuan, hizkuntzalarixen artian ablatibua ere esaten jakona.

Kasu-marka hau erabiltzen dan egitura aipagarri batzuk jasoko doguz.

#### NUNDIK DIFERENTE

*\_Zuek uste (d)ozue inguruko herrixetan, Eibarren, Azkoittixan diferente eitxen dabela berba? \_Zela, hemendik diferente? Baai!*

#### NUNDIK JAKIN

*Handik jakitzen da nun ibilli geran urte osuan (agendatik, alegia, agendiari begiratzetik).*

#### NUNDIK ATERA KONTUAK

*Etera kontuak hortik zenbateraiño sartuta zauden sasoi haretan gaitzizenak.*

#### NUNDIK PENTSASU

*Pentsaisu hortik ze miserixa zaguan gerra ostian.*

#### OINGOTIK

*Oingotik asmauko dozue nola egiñ, ezta! (= oingo honetan)*

*NUNDIK + (KO) + ALDIAN: hemendikaldian, handikaldian, hortikaldian...*

*Eta, hi, lenengo prantzesa banderia egoten zuan handiko zubixan, eta hemendikaldian española egoten zuan.*

#### -RIK ABLATIBO ZAHARRA

Ablatibuaren forma hau erabiltzen da oraindik gure artian, baiña esapide egiñetan, jakiñetan bakarrik: *bi ordurik behin, Kalerik kale...*

*Jesus Mari Makazaga*



Jose Julian Zubiarre

*Erraza izan zen zu maitatzea ezinezkoa izango da zu ahaztea. Beti gurekin izango zara.*

#### IV. URTEURRENA

Urteurreneko meza izango da, larunbatean, azaroak 24, arratsaldeko 19:00etan San Bartolome parrokian.




Etxekoak

JOSE ANTONIO OSORO "KATXO", BANDAKO ZUZENDARIA

## "ELGOIBAR ASKO MAITE DUT, BAINA BANDA GEHIAGO"

*Hamabi urte eskas zituenean sartu zen Udal Musika Bandan. Dagoeneko 50 urte pasatu dira baina ilusioz heltzen dio oraindik hainbeste zirrara eragiten dion afizioari. Lehenengo omenaldia jasoko du, merezitakoa. Lehena eta bakarra. Ez du gehiago nahi. Gazteei paso eman behar zaiela uste du. Banda ere hiru urte barru lagatzekotan omen da.*



► **50 urte luze bandan. Arin pasatu zaizkizu?**

50 urte ez dira hain azkar pasatzen, kostata baizik. Azkar pasatu zaizkit zuzendari postuan pasatako ia 24 urteak. 12 urterekin hasi nintzen bandan. Ia bizitza guztia. Afizioa handia izan dut. Lagunak banituen futbolean eta ibiltzen zirenak baina nik musika nuen gogo-

► **Garai hartan ez zen ohikoa izango musikan jardutea?**

Orduan musikan jarduten zuena bandarako zen. Beste batzuk elizako abesbatza aritzen ziren. Nire gazte denboran, ez zegoen besterik: futbola, zinea eta musika plazan..

► **Abesbatza ere ibilitakoa zara?**

Bai, egon nintzen elizakoan, baina bandan nahiago.

► **Jasoko duzun lehenengo omenaldia izango da?**

Bai, lehenengo. Bat eta nahikoa.

► **Eta bestea bandak 125 betetzen dituztenean, ezta?**

Bandari egingo zaio. Banda ez da zuzendaria bakarrik; partaide guztiak dira. Eta nik oso talde ona dut, jende ona, prestatua, eta arduratsua. Aurrekoek ere egingako lanagatik jarraitzen du Elgoibarko bandak. Orduantxe nahi nuke banda lagatzea.

► **Erabakia hartuta dago?**

Asmoa daukat. Askotan esaten diet lagako dudala, zahartzen ari naizela. Gainera gazteei paso eman behar zaie.

«Txikitatik  
musika dut  
gogoko»





▶ **Ondo prestatuta daudela diozu. Non dago sekretua?**

Elgoibarren musika eskolan oso ondo prestatzen dituzte teknikoki.

▶ **Gipuzkoan badaude musika eskola gehiago, baina gutxiak dute harrobi hori. Zer pasatzen da Elgoibarren?**

Musika eskola, abesbatza, banda, txistulariak, dultzaineroak, txaranga, musika eskolako banda, orkestra, soinu-joleak, trikitilariak... herri gutxiak dituzte. Gipuzkoa guztiak Elgoibarkoaren maila izango balu, hobeto.

▶ **Jarraitzalerik, publikorik ere ez da falta...**

Guk herriko antzokian ematen ditugu kontzertuak, bat izan ezik, San Bartolome egunekoa, plazan jotzen baitugu. Gehienetan antzokia beteta egoten da.

▶ **Plazan jotzea berezia izango da zuretzat, ezta?**

Bai, gainera goizean egoten da kalejira, gero prozesioa...

▶ **Tentaldirik edo eskaintzarik izan duzu beste herri batean bandako zuzendari izateko?**

Ez, ez dut jaso nahi izan ere. Eibarren behin esan zidaten, baina ez ofizialki. Nik Elgoibar asko maite dut eta Elgoibarko banda gehiago.

▶ **Musikari eta herriari beti lotuta egon zara...**

Bai, bandaz aparte ere ibilita nago jaunartze eta ezkontzetan, erromerietan. Lajarekin, Angiozarko itsuarekin... jotakoa naiz. Tokatzen zena. Jatetxe batetik deitu eta hara joaten ginen.

▶ **Ezkondu zinenean zein musika jo zuten?**

Ez nuen ezer berezirik prestatu; ez naiz gogoratzen.

▶ **Instrumentu kuttunena zein duzu?**

Klarinetea eta saxofoia.

▶ **Biak berdin?**

Bandan klarinete-jolea izan naiz, gero saxofoiarekin ere bai. Klarinetea zailagoa da saxofoia baino, baina biak maite ditut.

▶ **Entsegu asko egiten duzue bandan?**

Astean behin.

▶ **Nahikoa izaten da?**

Ez, bi egun balira hobe, baina jendea ezin da etorri. Gu afizionatuak gara, baina musikari batzuek euren kontura entsega-

tzen dute eta gero entsegu orokorra bi ordutako izaten da. Nahiko gogorra da. Bi entsegu jarri ezker, jendea ez litzateke etorriko, bakoitzak bere zereginak ditu.

▶ **Esaten da musikak piztiak ere lasaitzen dituela. Ados zaude?**

Jotzen lasaitzen da jendea eta instrumentu-jolea izatea izugarria da sentimenduz jo ezker behintzat. Futbola gustatzen zaionak futbolaria izan nahiko du eta Lehenengo Mailakoa bada, hobeto...

▶ **Dirua barra-barra irabazteko...**

Bai, gu ez gara aberats bihurtu. Afizioa handia daukagu. Ilusioa behar da. Lehenengo eguneko ilusioari eusten diot. Kontzertu bat heltzen denean zirrara hori sentitzen dut. Aurrekoek egin dutena hobetzen saiatu behar da.

▶ **Zure aurrekoek ere lan handia egin dute.**

Bai, bereziki Jose Zubiaurre "Ballek". Beldurgarri egin zuen lana.

▶ **Jendeak ere estimatu zuen...**

Hark pasatu zituen itzelak. Baina bokazioa zuen.

▶ **Idatzi edo konposatu duzu?**

Ez, nirea zuzentzea izan da.

▶ **Eta instrumentu guztiak berdin ezagutzen dituzu?**

Ezagutu bai, baina jo ez, ulertu ulertzen ditut.

«Banda lagatzeko tentaldirik ez dut izan»

▶ **Ulertzeko instrumenturik zailena?**

Instrumentu zail edo errazarik ez dago. Baxua ere gustatzen zait, baina gaur egungo gazteek nahi dute melodia, edo trompeta, saxofoia... Banda batean denek ezin dute aurrelari izan.

▶ **Musika modemoagoa jotzea ere eskatzen dute gazteek?**

Gazteek bai. Hurrengo kontzertuan lau lan estreinako aldiz jotzen ditugu, eta konpositoreak modemoak dira. Klasikoa ere gustatzen zaie, baina kontzertu batean

ezin da dena modemoa atera. Bazkari baten antzera, ez da komeni entsalada epe-la bakarrik ateratzea. Denetik egon behar du. Musikan berdin pasatzen da. Pasodoble bat jotzen duzu girotzeko eta gero obertura bat dator, jarraian klasikoa eta bukatzeko zarzuela bat eta modemoak. Modu horretan publiko guztiarekin ongi geratzen zara. Baina partituras oso garesti daude.

▶ **Ulertzen duzu zergatik?**

Bai, demagun pelikula bat: *El rey león* edo *Los piratas del Caribe*... Egileak kobratzeko eskubidea du. Valentziako etxe batek eskusibitatea du Estatu osoan obra modemoak saltzeko eta katalogoak bidaltzen dituzte. Konpositoreak badaki berak 50 saltzen baditu, horietatik 250 pasatuko dirrela eta horregatik kobratzen dute garesti.

▶ **Hamabi urterekin hasi eta lortu duzun guztia ikusita, harro zaude?**

Bai, oso pozik eta pixkana-pixkanaka zuzendari izatea lortu dut. Atrilean nagoen zuzendaria naiz eta hortik jaistean laguna.

Elkarrizketa osorik irakurtzeko:  
[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)

## Urte biribilak, ibilbide biribil batentzat

Gogoratzen du ilusioz joan zela Udal Musika Bandan izena ematea, eta "pixkana-pixkanaka zuzendari izatea lortu du", argitzen digu umiltasunez. Jose Zubiaurre "Balle" eta Felix Lodoso Bergaretxerekin hasi zituen musika eskolak, eta jarraian klarinete eta saxofoian trebatzen hasi zen, Elgoibarko Musika Bandako kide izatera pasatuaz. Saxofoi Tenorea jo zuen hiru urtetan eta gero klarinetarekin aritu zen.

Bandako solista izan zen instrumentu horrekin. Eibar, Deba, Azkoitia, Markina, Mutriku eta Ondarroako Musika Bandetan jardun zuen instrumentu-jole. Donostiako Orfeoiarekin ere jo zuen 13 edo 14 urte zituenean. "Elgoibarrera etorri zen Donostiako Orfeoia 1958an eta herriko bandarekin batera jo zuen", adierazi digu. Ez zuen gehiago errepikatu orfeoiarekin, baina "hor dago historialean. Zahartzoari egindako omenaldia izan zen, urtero Gipuzkoako herri batean egiten zena. Gorostidi izan zen zuzendari", azaldu du.

1979an bandako zuzendariorde izendatu zuten eta urte batzuetan solfeo eta instrumentuen (klarineteta eta saxofoia) eskolak eman zituen. 1984ko urtarilaren 6an zuzendari hautatu zuten eta harezkerotik kargu horretan dihardu.

Zuzendari denetik, hirurehun kontzertu baino gehiago eman ditu, herrian bertan eta inguruetan. Bergara, Eibar, Azkoitia, Azpeitia, Deba, Mutriku, Mendara, Zumaia, Zarautz, Pasaia, Soraluze, Getxo, Eltziego, Biasteri, Loiola (Loiola 91ko klausura)... dira herri horietako batzuk.

Bihar eta etzi, Santa Zezilia eguneko ekitaldien banean, omenaldia jasoko du bandak 50 urte bete eta gero. Musika-ren patrioaren egunean izan behar zuen. Bandak 125 urte betetzen dituenean lagako ei du. Batzuk ez diote sinesten, musikari buruz hitz egiten duenean pasioz hitz egiten duela, baina bere ustez garai biribila izango da bukaera emateko.

Urte biribilak ibilbide biribil batentzat. Hasierako sasoi horren erretratu gutxi ditu, ez zirelako behar bezain beste ateratzen. Baina burua argi du musika afizio bihurtu duen Jose Antonio Osoro "Katzok".



*Goiko ilaran eskumakoa da "Katzok". Egun horretan traje berria estreinatu zuen bandak. 1974ko argazkia.*



*ETB estreinakoz Elgoibarrera etorri zen egunean ateratako argazkia.*



*San Bartolome eguneko kalejira.*

## OMENALDIA EGITARAUA

### Azaroak 24, zapatua

**19.00** Meza bandan hil diren musikarien alde. Udal Musika Bandak Haendelen "Largo" joko du. Handik itendakoan, Udalera gerturatuko dira omendua eta udaleko ordezkariak. Udaleko bilkuren aretoan, herriko urrezko domina jarriko diote. Banda ere ekitaldi honetan izango da.

### Azaroak 25, domeka

**10.15** Pasakalea.  
**12.35** Kontzertua herriko antzokian:  
- "La Kermes de las vistillas" pasodoblea (M. Domingo)  
- "Overture to a new Millennium" (Ed Huckleby)  
- "Xylophonia" bakarlaria Gorka Errezil (Joe Green)  
- "Pops in the Spots" (R. Kerner)  
- "The Olympic Spirit" (J. Williams)

Diktadore espainiarra hil zela 32 urte izan dira aste honetan.

## Akorduan daukazu Franco hil zen eguna?

**JUAN MARTIN**  
Erretiratua  
61 urte



“Ez nuen ospatu, egun arrunta izan zen. “Patxi” hil zela telebistan esan aurretik hilik zegoen. Ez nintzen bereziki poztu, edonor hil izan balitz bezala sentitu nuen.”

**ISMAEL ARENAS**  
Aurrejubilatua  
60 urte



“Ez naiz politika kontuetan aditua eta ia ez naiz akordatu ere egiten. Lehen, gaur egun bezala, lana egin behar zen. Lehen arazoak zeuden, gaur egun ere bai.”

**ISABEL MARTIN**  
Etxeko andrea  
63 urte



“Ezusteko handirik gabe bizi nuen. 30 urte daramatzat hemen. Jaenen jaiio nintzen eta egia da, sasoi hartan, pobrezia dezente zegoela. Ez naiz politika kontuetan iaioa.”

**ANA MARI LASA**  
Etxeko andrea  
64 urte



“Askapen itzela izan zen, eta poztu egin nintzen. Garai hartan ez geneukan askatasunik eta gizartea kateatuta zegoen. Bizimodua aldatu da, baina ez gehiegi.”

## [ BAI ala EZ? ]

**Erosteko ohiturak aldatu dituzu prezioak igo direlako?**

**BAI %76**

“Bai. Atentzio gehiago jartzen dut erosterakoan eta marka zuria deitzen dioten produktuak erosten saiatzen naiz. Asteke erosceta merkeago ateratzen zait.”

**EZ %24**

“Ez. Behar ditudan produktuak soilik erosten ditut eta ez diet prezioei erreparatzen. Sekula ez dut erosceta kontua begiratzen, ez dakit zenbat gastatzen dudana.”

Datorren asterako... **Petrolioaren ordez bioerregaiak merkaturatzen hasi dira.**  
**Ekarriko du onurarik bioerregaiak?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) ERANTZUNA

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.

Talasoterapia  
**Zelai**  
Z U M A I A

Hilabete honetan  
2 pertsonentzako zirkuito  
bat zozketatuko dugu  
**Zumaiko Zelai Talasoterapian.**  
Zenbat eta erantzun gehiago,  
aukera gehiago!

[www.talasozeelai.com](http://www.talasozeelai.com)



## [ PROTAGONISTA ]



### Irune Berasaluze

Irune Berasaluze, Mendaroko alkatea, Euskadi Buru Batzarreko kide izendatuko dute datorren abenduaren 15ean. Ogibidez abokatua da bera, Deustuko Unibertsitatean Lizentziatua. Maiatzeko hauteskundeak irabazi ondoren hartu zuen Mendaroko alkate kargua. EAJ alderdiko afiliatuek abenduaren 2an izendatuko dute Iñigo Urkullu EBB-ko presidente eta, horrekin batera, beste zortzi lagunek osatuko dute bilkura. Abendutik aurrera, beraz, EBB berritua geldituko da, izan ere, aurreko batzarretik bi lagunek bakarrik jarraituko dute euren karguan.

## [ NOTIZIA ]

### Ebakuntzak egiteko epea 48,9 egunekoa da Mendaroko Ospitalean

**D**ebabarreneko Nagusien Kontseiluak bidalitako datuen arabera, 48,9 egun itxaron behar dira, batez beste, Mendaroko Ospitalean ebakuntza egiteko. Uztaillean emandako datuak kontuan hartzen baditugu, egoerak hoberra egin duela esan daiteke, izan ere, orduan 59 egunekoa zen-eta.

#### Osakidetzako itxoite epeen azpitik

Eusko Jaurlaritzak ospitaleetako itxarote epeei buruzko dekretua kaleratu zuen 2006an. Horren arabera, kardiologia ebakuntzen itxarote epea 90 egunekoa da; onkologian 30 egunekoa eta gainontzekoetan 180 egunekoa. Epe hori gairidituz gero, gaixoak ospitale pribatu batera joateko eskubidea dauka, ezer ordaindu



gabe. Mendaron inork ez du bide horretatik jo. Nagusien Kontseiluaren esanetan, neuri egokiak hartzen ari dira ospitalean baina ez dira nahikoak: "Mendaroko ospitalea lehenbailehen handitu beharra dago".

## [ ZENBAKIA ]

# 7

Errosario kaleko 35. zenbakian zazpi etxebizitza berri egingo dituzte. Kultur Etxeko parkearen alboan dagoen eraikuntza zaharra bota eta berria egingo dute. Lau solairu izango ditu. Bakoitzean bi etxebizitza egongo dira, eta azkena teilatuepean joango da. Azpian bi lokal komertzial jarriko dituzte.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Madalako errotonda hutsik! Harigarria, ezta? Errotondetan aparkatzea debekatuta dago, baina Elgoibarren orain arte libre zen. Azken egunotan udaltzainak egurra ematen hasi dira Madalako errotondan. Isunak bata bestearen atzetik jari dituzte, errotondan ez aparkatzeko helburuarekin eta badiardi lortu dutela. Hori da bidea? Orain, behintzat, funtzionatu du. Hala ere, oraindik badaukate lana udaltzainek: Osasun Zentroko errotonda, Urasandira igotzekoa, Santa Ana kalekoa... Ezagutuko ditugu horiek ere hutsik?

## Datorren urtean hasiko dira Olasoko errotonda berria egiteko obrak



Alfredo Etxeberria eta Jon Zubiaurre proiektuaren planoak azaltzen

Olasoko errotondaren obrak 2008an hasiko dira. Eusko Jaurlaritzako Izartu II. programaren barruan burutuko dira obra horiek eta helburua, Sigma inguruneke trafikoa hobeto antolatzea izango da. Hilerrirako sarrera baino apur bat beherago egingo dute biribilgunea. Proiektuak 2,5 milioi euroko aurrekontua dauka.

### Sigma auzorako sarrera-irteera

Gaur egun Sigma auzorako dagoen sarrera-irteera oso arriskutsua da, batez ere, itetzeko. Biribilgune berria egin ondoren,

ren, auzora sartzeko bakarrik erabiliko da bide hori. Auzoaren atzeko aldetik bide berria egingo dute errotonda berriraino eta hori izango da auzotik N-634 errepidera ateratzeko bidea. Sigma auzoan, beraz, trafikoa norabide bakarrean joango da.

Horrez gain, Sigmako industriagunera sartzeko bidea egingo dute errotonda berrietik. Bide hori Goiko-Errota zubiraino iritsiko da eta bertatik herri barrura sartzeko aukera egongo da. Aukera berri horrekin, herri barrurako sarbide bat gehiago izango dugu.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Sorospen ikastaroa

Elgoibarko Gurutze Gorriak lehen sorospen ikastaroa antolatu du. Asteazken zehar edo asteburuetan egiteko aukera egongo da. Informazio gehiago lortzeko 943743864 telefonora deitu daiteke.

### Jubilatuena Asteko ekintzak asteburuan amaituko dira

Martitzenean hasi ziren Jubilatuena Asteko ekintzak eta asteburu honetan izango dute jarraipena. Txokolate jana, Iratxera bidaia, Gabonetako otarren zozketak eta 80 urtetik gorako bazkari-omenaldia egin dira orain arte. Bihar arratsaldean kina saioa izango da Jubilatuena Egoitza. Domekan, berriz, Meza Nagusia 12:00etan eta Gelatxorekin dantaldia 18:00etan.


### Bihar, azaroak 24, Gazteak Madalara!

Elgoibarko gazte talde batek bizitza eman nahi die herriko kaleei. Asteburuetan kaleak hutsik egoten direla diote eta jendea ezagutzeko gero eta zailagoa omen da. Herriko gazteak bildu nahi dituzte eta horretarako, biharko jarri dute hitzordua: eguerdiko 12:00etan gazteak Madalara joateko deia egin dute.

### Garbigune mugikorra eta produktu ekologikoak Altzolan

Zubibai Elkartea Altzolan hobetzeko lanean ari da eta, poliki-poliki, hasi dira zenbait gauza lortzen. Aurretik, hilabeteko hirugarren ostiralean, garbigune mugikorraren bisita izango dute. Karmen Plazan kokatuko da kamioia eta erabilitako olio edota elektrogailu txikiak jasoko ditu. Bestalde, Ballibar baserriko produktu ekologikoak jarriko dituzte salgai Altzolan. Eguerdiko 12:00etatik aurrera, Karmen Plazan eta iturri inguruan jarriko dituzte postuak.

## www.elgoibar1936.com bloga sortu dute



Elgoibarko memoria historikoa berreskuratzeko asmoz sortu zen Elgoibar1936 taldea. Orain blog bat jarri dute martxan eta bertan, 1936ko Gerra Zibilak Elgoibarraren izan zuen eragina islatzen da. Garai hartako argazkiak, frontean hildako elgoibartarren izenak, gure herrian fusilatu zituztenak eta beste hainbat informazio aurki daiteke. Webgune horretan, bestalde, erabiltzaileek euren iritziak emateko aukera daukate. [www.elgoibar1936.com](http://www.elgoibar1936.com) helbidea aurkituko duzue.

## ▶ **OLGA SALAZAR** KOLONBIA [HEGO AMERIKA]

### «Euskal Herriko hotza ez dut oso ondo jasaten, Kolonbia askoz epelagoa da»

MENDARON BIZI DA OLGA SALAZAR KOLONBIARRA. 37 URTE DITU. GAZTEA BAINA BIZIPEN HANDIKO EMAKUMEA DUGU, DUDARIK GABE. DUELA ZAZPI URTE ERABAKI ZUEN BIZIMODUA ALDATZEA, EZIN ZUEN KOLONBIAN JARRAITU ETA BERE HERRIALDEA LAGA ZUEN. GALIZIARA IRITSI ZEN, BAINA EZ ZITZAION GEHIEGI GUSTATU. URTEBETE GEROAGO EUSKAL HERRIRA ETORRI ZEN.



#### ▶ Zergatik erabaki zenuen Kolonbiatik irtetea?

Arazo ekonomikoengatik erabaki nuen handik irtetea. Ni bezala, bere herrialdea lagatzen duten guztiak arrazoi berarengatik egiten dute. Kolonbian ez dago bizitzeko erraztasunik.

#### ▶ Nolako da Kolonbia?

Ederra! Leku zoragarria da, baina bizimodua gogorra da. Gobernuek ez dute laguntzarik ematen eta lana bi-latzeko arazo handiak daude. 30 urtetik gorakoentzat ez dago lanik. Jende gehienak kotoigintzan egiten du lan, horixe da lurraldearen diru-iturria. Nik izan nuen lana urte batzutan, baina egun batetik bestera lanik gabe gelditu nintzen eta horrela ez dago bizitzerik. Kolonbian ez dago erdi mailako bizilagunik, denak oso aberatsak edo oso pobreak dira.

#### ▶ Zaila egin zitaizun zure herrialdea uztea?

Bai, gogorra da. Ama, ahizpa, nebak eta 11 urteko alaba utzi nituen bertan. Ez zen erraza izan. Zorionez, urtebete baino lehenago ekarri ahal izan nuen nire alaba hona eta orain nirekin bizi da Mendaron.

### «Kotoigintza da Kolonbiako diru iturri garrantzitsuen»



#### ▶ Nola hartu zaitu Mendaroko herriak?

Oso ondo. Galizian egin nuen, urtebete baino ez zitzaidan gustatu. Mendaron askoz hobeto nago. Iritsi eta berehala maitemindu egin nintzen. Bost urte daramatzat mendaroar batekin ezkondu. Nire alabak hemezortzi urte ditu eta bere ere oso gustura dago. Hasieran Kolonbiara itzultzea nahi zuen, baina orain oso ondo dago. Ikasten ari da eta lagun onak egin ditu. Aurten ez da nirekin joan Kolonbiako senideak bisitatzerara ere!



# DEKORAZIO

GEHIGARRIA



# ETXE APAINDUZ

DEKORAZIO GEHIGARRIA

## Nola aukeratu alfonbrak

### 1. Neurria hartu

Estali nahi den guneari neurria hartu behar zaio. Hutsik dagoen lekua bada, bilaketa errazagoa izango da zentimetro batzuk gorabehera. Baina altzariak dauden tokian (mahai edo sofa baten azpian) neurriak zehatza izan behar du.



### 2. Apaindurari kasu egin

Gelaren itxura oso modemoa bada, horren parekoa aukeratu beharko zenuke, oreka hori hauts ez dezagun.

### 3. Haien artean ongi konbinatzen dira.

Albonbra konbinaketa askotarikoa izan daiteke eta gela batetik bestera aldatzen joan daiteke. Pertsiar estiloko bat behin erosi badugu, hurrengoan beste mota bat aukera genezake, estiloak aldatuz, baina apaindura orokorarekin bat eginez.

### 4. Erabilera

Ez da gauza bera askotan erabilitako bat, edo ukitu ere ez dugun beste bat. Hori dela eta gogortasuna, kolorea eta garbitzeko erraztasuna bezalako irizpideetan ohartu behar gara.


### 5. Kolorea

Klasikoa edo harmoniaz betea nahi baduzu, aukera ezazu kolore ilunekoa lurrean jartzeko, kolore ez iluna ez argia hormetarako, eta argia sabairako.

**Aure**

**BERRIA!!**  
Alfombretan aukera paregabea!

Santa Ana, 8  
Tel./Fax: 943 74 35 09  
20870 ELGOIBAR





TEXTIL HOGAR • KOLTZOI DENDA

# LAGUNAK

## ESKAINZA MUNDIALA



KOLTZOI BISCOELASTIKOA

OPARIA

80/90

lehen 530€

**440€**

105

lehen 645€

**535€**

135

lehen 720€

**599€**

150

lehen 820€

**685€**

**BURKO BISCOELASTIKOA**  
FABRIKATIK ZUZENEAN!

\* 2 M. LUZERAKO OHEAN %10 GEHIAGO

# URZELAI

Elektrizitatea  
Argiztapena



Santa Ana, 12-14 • Tel.: 943 74 13 76 / 608 77 40 32



# Pitxerrak, loreekin edo lorerik gabe?

**E**txea girotu nahi baduzu, txarroa da aukerarik aproposena. Baina hautua egokiena izan dadin, lorerik eramango duen erabaki beharko duzu. Kontuan hartu behar da pitxerraren arabera jarriko ditugula. Txarroa bera ezin politagoa bada, zertarako erantsi loreren bat? Gakoa orekan dago, dena bere neurrian egon dadin.

## Kolore aukeraketa

Material mota ugari daude: zura, kristala, keramika, portzelana... Baina kolore argiko gela bada, kolore biziak erabiliko ditugu edo oso lore koloretsuak. Eta alderantziz, altzari ilunak baditu eta argi nahikoa sartzen bada, kristalezko ontziak hautatuko ditugu kanpoaldeko argi-izpiak sar ditezten.

## Kristalezko lorontziak

Beirak dotorezia eranstean du eta kristala bera apain geratzen da koloreztaturik badago, baina ez ordea garden-gardena bada. Kasu horietan, zortuin altuko lore freskoak jar daitezke, baina inoiz ez plastikozkoak. Maskor handiak, txikiak edo harea ere jar dezakegu itxura erakargarriagoa emateko.

## Pitxarraren tamaina

Lorearen tamainak adieraziko du noiz jarri txarro handia edo txikia. Zutoin altukoak ez da komeni pitxar baxu batean nahastea, lorontzi estuetan egokiago baitaude. Fruitu lehor eta loretxo batzuk, berriz, aho zabala duen pitxar baxu batean koka daitezke. Sasoian sasoiko loreak merkeagoak dira, ohiko larrosa eta gladioloak baino.

## Non kokatu

Ez da gauza bera altzari bat egongelaren erdian edo bazterrean egotea. Erdigunean badago, begiratzen ditugun leku guztietatik, loreek itxura bera izan behar dute. Hori zurtainak pitxer baxuetan moztuz lortzen da, eta lore luzeak modu berean banatuz ontzi altuetan.



**arkhiruarkitektoak**  
Xixilion 2bs 1 SIGMA-ELGOIBAR telf-fax: 943743145 ark3arkitektoak@coavn.org

**HIRIGINTZA ETA ARKITEKTURA LANAK**  
Obra Berriak / Eraberritzeak / Barne Diseinua  
Etxebizitzak / Pabilioi Industrialak / Lokalak / Igogailuak  
Obra Lizentziak / Jarduera Lizentziak  
Ziurtagiriak / Txostenak / Eraikuntzen ITEak / NeurketaK  
Paisajismo Lanak / Lorategi Diseinuak



# LODOSO LEIHOAK

*Zure neurria egindako lana*



- PVCa
- ALUMINIO TERMIKOA
- ZURA
- ALUMINIOA
- POLIURETANOA

Sigmako industrialdea, Xixilion, 2. pabilioia, 3. zenbakia

Tel.: 943 74 34 90 Faxa: 943 74 73 12

[www.lodoso.es](http://www.lodoso.es)

[fjodoso@euskalnet.net](mailto:fjodoso@euskalnet.net)





**BIENA AROZTEGIA**

Ermuaranbide 12, 14, 16  
baxua

☎ 943 743 116

**GARCIA AROZTEGIA**

P. Muguruza, 30

☎ 943 743 238

**ARAMAR ELEKTRIZITATEA**

Morkaiko, 1

☎ 943 741 280



**URZELAI ELEKTRIZITATEA**

Santa Ana, 12-14

☎ 943 741 376



**ONGI ITURGINTZA**

Olaso poligonoa, 15-68 pabilioia

☎ 943 74 28 80

**ZALDUA ITURGINTZA**

Urasandi, 17 baxua

☎ 943 740 530

☎ 605 714 905

[fontaneriazaldua@euskalnet.net](mailto:fontaneriazaldua@euskalnet.net)



**BIGARA ERREFORMAK**

San Frantzisko, 11-5

☎ 696 95 27 95

☎ 696 95 27 96

**ESTUDIOS ARRILLAGA**

Errosario, 15 beheka - ELG

☎ 943 744 055 / 943 744 019

Arragueta, 12 beheka - EIB



### **AMAR AROZTEGIA**

Olaso, 15 – 55 pabilioia A1  
☎ 943 531 471  
☎ 646 905 564  
☎ 609 054 978

### **LODOSO AROZTEGIA**

Leihoak  
Sigmako industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilioia 3.  
zenb.

### **ULAZIA AROZTEGIA**

Santa Klara, 10  
☎ 943 740 547



### **E. ARANDIA**

Urasandi, 22 baxua  
☎ 605 705 204



### **IPINTZA PINTURAK**

Foruen Enparantza, 4  
☎ 943 740 440  
☎ 607 740 440

### **BIOK DEKORAZIOA**

Santa Klara, 26 behea  
☎ 943 741 552  
☎ 606 431 119-20

DIBAR  
14  
AR

### **ANE DEKORAZIOA**

Santa Ana , 8  
☎/Fax.: 943 74 35 09

### **ARKHIRU ARKITEKTURA**

Xixilion kalea bs 1.bulegoa SIG-  
MA  
☎/Fax.: 943 74 31 45

### **DIS -ART DISEINU ESTUDIOA**

Pedro Muguruza Etorbidea 5  
☎/Fax.: 943 74 32 45

# Bost aholku gela aldrebesak apaintzeko

Zure gela txikiegia, handiena, altuegia... bada, bost aholku praktiko eskaintzen dizuegu.

## 1. Logela luzeegia dela?

Zatikatu eta bereiztu gutxienez bi espazio: irakurtzeko, elkartzeko edo nahi duzunerako. Erabili alfombra edo tapeteak leku bakoitza mugatzeko, eta batu ahal duzun egokien diseinu bakoitza. Kolore ilunak erabiltzen badituzu mutur bakoitzean, horiek azpimarratuko dituzu, ikus ahalmena gutxituz.

## 2. Gela estua dela?

Jar itzazu zure altzairuak zeharka, margotu horma altuenak kolore freskoarekin, bistara handiago eman dezan eta ipini margo, altzairu edo alfonbrak horma laburrenaren kontra.



## 3. Sabaia baxu dagoela?

Ahal duzun neurrian "altxatu" osagai altuekin, liburutegiekin esaterako. Zorutik luzatzen diren gortinak ere balekoak dira, lanpara altuak bezalaxe. Margotu sabaizuna kolore argi eta freskoekin eta horrela argiago eta irekiago dagoela emango du.

## 4. Logela altuegia dela?

Osagai lauak erabil ditzakezu sabaia gerturatzeko: altzariak, moldurak eta apalak. Gainera moldurak eta aulkiak babesteko hegalak ere jar daitezke. Trikimailu horiekin gertutasun sentsazioa gordeko da. Era berean, margotu sabaia kolore ilun eta apalekin.

## 5. Handiegia dela?

Bereiz itzazu leku intimoetan eta jarri aulki pare bat diban baten ondoan, beste bi aulki eta mahaitxo bat, sofa eta aulki bat eta antzekoak. Gela erosoago geldituko da. Kolore epelek gelen mugimendua eragiten dute, aurreratzen joango bazina bezala.

Zure gelak duen arazoa edozein dela ere, gogoan hartu kolorea eta lerroen osaketa.





# ESTUDIOS ARRILLAGA

**PROIEKTUAK eta ERREFORMAK**

Errosario 15. ELGOIBAR Tel. 943 74 40 19      Arragueta 12. EIBAR Tel. 943 20 06 98



## Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!

- Fatxadaren errehabilitazioa
- Apaintzeko pintura
- Paperak eta muralak
- Parket flotatzailak
- Pintura orokorrean

**GEHIENKO BERMEA AKABERA ETA GARBIKETAN!**  
www.blokdekorazioa.com



Santa Clara, 26 behea ezkerrean  
Tel.: 943 74 16 52 / 606 43 11 20



-DEKORAZIO AHOLKULARITZA

-PLANO TEKNIKOAK


-BEZEROAREN AURREKONTUARI EGOKITUTAKO PROIEKTUAK

-GREMIOEN KOORDINAZIOA

-ALTZARIAK

-SUKALDEAK

Pedro Muguruza Etorbidea 5 Elgoibar  
Tel/fax: 943 743245  
disart@disartestudio.net  
www.disartestudio.net



*Adi gazteak!!!*

Altzatzeko larruzko ohea + 150x190 koltxoia	1.250€
2 kaxoiko mesanotxea, laka-distiratsuduna	210€
Kaxoi bakarreko mesanotxea, laka-distiratsuduna	160€

ZURE NEURRIRA FINANTZATZEN DUGU

**1620€**

*Friondo*  
altzariak

Centa Ana 4-6 20400 ELGOIBAR TEL: 943 743234  
mueblesfriondo@euskalnet.net




# Feng Shui logelan

**G**ela zehatz bakoitzean denbora gehiago pasatzeak badu eraginik. Feng Shuiak garrantzi handia ematen dio horri, jakin badakielako logelan orduak eta orduak pasatzen ditugula. Logela egoki batek bi osagai izango ditu: intimitatea eta deskantsua.

Ohearen lekuak berebiziko garrantzia du eta irizpide hauek jarraitzea gomendatzen du:

- ❑ Ispilu bat nahikoa da logelan, baina ez du ohean gaudenean agerian egon behar. Itxuroso gaudenean gure irudi onena emateko leku aproposenean jarri beharko litzateke.
- ❑ Ohearen burualdea atetik ahalik eta urrutien egon beharko luke, ez noski atearan jarraian.
- ❑ Oheak bizkarraleda eduki behar du, eta ez ditugu ohe atzean leihorik edo ispilurik ipiniko.
- ❑ Bikotez aldatzen badugu, komeni da ohez aldatzea edo gutxienez barrukalde berria jartzea.
- ❑ Ahalik eta aparatu elektronikoko gutxien eduki.



# Emilia Nogales

MARGOAK

Trenbide  
kalea 11, behea

Tel: 943 743 566  
686 224 421



ELMAR  
cucine



nu-van

ALESSI

bernardo ezenarro 17,  
943-747414



COSMIC  
bath



[www.aome.es](http://www.aome.es)

interiorismoa





*Aue*

GREMIOEN KOORDINAZIOA,  
DEKORAZIOA, BERRIKUNTZA ETA  
ALTZARIAK.

Santa Ana, 8 - Tel./Fax.: 943 74 35 09 20870 Elgoibar - Gipuzkoa

## Argazkiz osatutako dekorazioa

### Ohe-buruak

**G**ure oheburukoa nahi bezain eder gera dadin, hainbat irudiren artean aukera daiteke. Hori gutxi balitz, diseinua egitea ere zilegi da nahi dugun kalitatezko argazki horrekin. Oheburuko berezi horiek ez dira edonola egiten. Horretarako trazu fineko oihal bat erabiliko dugu, apropos trataturikoa. Eraitza aho zabalik lagatzeko modukoa da.



### Estoreak

**E**storeek lortzen dute ohiko ehun estanpatuek lortzen ez duten zirrara. Argazki-estoreak 1,74 metro zabalera bitartean ezar daitezke eta asmoa leiho tarteko hutsune hori betzeko modu egoki bat izatea da. Bide batez, behin betiko arte lan bat edukitzea lortzen da, erakusketa baten pare. Leku malguetan inprimitzen dira bertan ondo biribiltzeko.



*Lombok*

- Opariak
- Dekorazioa
- Altzariak

Errosario, 30 behea · Tel. 943 53 10 68





► **Zu joaten zara Kolonbiara senideak bisitatzeraz?**

Bai, ahal dudan guztietan joaten naiz, urtean behin gutxienez egiten dut Kolonbiara bidaia. Aurten nire senarrarekin joan naiz, oraindik ez zuen nire familia ezagutzen. Izugarri gustatu zaio nire herrialdea. Calin bizi dira nire senideak, iparraldean dago. Hiri polita da, benetan. Hemen nagoenean Kolonbiara joateko irrikitan egoten naiz, baina han nagoenean hona etortzea nahi izaten dut.

► **Hemen zertan diharduzu?**

Garbiketa enpresa batean egiten dut lan. Ez naiz aberatsa, baina ondo bizitzeko dirua soberan daukat eta, gainera, Kolonbiako senideei bidaltzeko apur bat gelditzen zait. Orain, bestalde, tomugintzako ikastaro bat egiten hasi naiz IMHn. Enpresetan tomugintzarako langileak behar dira esan didate. Ikastaroa amaitutakoan enpresaren batean lanean hastea gustatuko litzaidake. Oso jatorrak dira irakasleak eta IMHko langileak. Oso gustura joaten naiz klasera.

► **Zer da Euskal Herriatik gehien gustatu zaizuna?**

Orokorrean dena gustatu zait. Bizimodu erraza da hemen, eroso. Lasai bizi naiz, beldurrik gabe. Hasieran jendearekin apur bat harrituta gelditu nintzen. Euskaldunak nahiko zakarrak zarete hitz egiterakoan, gu askoz maitakorrak gara. Hemen jendeak edozer esaten dizu, edozein modutan eta batzutan min ematen dute. Denborarekin konturatu naiz intenzio txarrik gabe egiten dutela, baina hasieran kostatu zitzaidan hizketa tonu horrekin ohitzea. Euskal Herriak daukan txar-

rrena negua da. Kolonbia askoz epelagoa da. Aldaketa klimatikoak eragina izan du han ere, eta orain euri gehiago egiten du, baina hotzik ez. Hotza ez dut oso ondo jasaten. Euskal Herrira etorri arte ez nuen elurra ezagutzen, hemen ikusi nuen lehenengo aldiz. Senarrak esaten dit hotz egiten duenean arropa gehiago janzteko, baina ez zait gustatzen jantzi askorekin ibiltzea.

► **Etorkizunerako asmorik?**

Kolonbiatik irten nintzenean nire asmoa ahalik eta azkarren bertara bueltatzea zen, diru apur bat egin eta buelta. Oraingo egoera oso desberdina da. Hemen geldituko naiz bizitzen, nire senarrarekin. Alaba ere oso gustura dago Euskal Herrian. Ez dut galduko Kolonbiako senideekin daukadan harremana, baina bisitan soilik joango naiz.



**KOLONBIA**

- **Hiriburua:** Bogota
- **Azalera:** 1.141.748 km<sup>2</sup>
- **Biztanleria:** 41.242.948
- **Dentsitatea:** 35,2 biz/m<sup>2</sup>
- **Hazkunde demografikoa:** %1,6
- **Bizi Itxaropena:** 69 urte
- **Gobernua:** Errepublika



# GAZTIA NAIZ

Gazte gaia...

## HERRRIKO

## URTX

SASOI BATEAN URTXINTXA BATEK PENINTSULA OSOA ZEHARKA OMEN ZEZAKEEN HEGOALDETIK IPARRALDERA LURRIK UKITU GABE. AIOR CUERDA, IMANOL BERISTAIN ETA IKER CALVO ERE GURE KALEETAN TOPA DAITEZKEEN OZTOPO GUZTIEI AURRE EGITEKO PREST DAUDE KATAGORRIEN MODURA. PARKOURRAREN INGURUKO DOKUMENTAL BAT IKUSI ETA HARREZKEROZTIK DIZIPLINA HORRETAN TREBATZEN ARI DIRA. 11 URTE ESKASEKIN SAIAZTEN DIRA HERRI BARNEAN AURKITZEN DITUZTEN HESIAK GAINDITZEN. HORIXE DA PARKOUR, PRESTAKUNTZA FISIKOA ONA, KONTZENTRAZIO MAILA ALTUA ETA NORBERAREN BELDURRAK GAINDITZEA ESKATZEN DUEN FILOSOFIA


**F**rantsesetik dator "parkour" adiera. Ibilbidea esan nahi du eta sortu zenetik, makina bat gorabehera bizi baditu ere, mundu osoko gazteen artea piztu du. Herrian bertan ere baditu zale ugari, horietako hiru dira Aitor Cuerda, Imanol Beristain eta Iker Calvo. Jantziak daude parkour mugimenduan eta duela urtebete inguru telebistan dokumental bat ikusi zutenetik, ez dute atzera egin.

Herri eskolako 6. mailako ikasle horiek badute meritua, eta parkourrak eskatzen duen diziplina horretan euren burua probatzen ari dira. Ilusioa jartzen dute oztopoak gainditzeko erronkan eta ahal duten neurrian, jauziak egiten dituzte orerik galdu gabe.

### Norbere burua proban jarri

Horixe da parkourraren lehen lezioa, norberak dituen beldur eta mugak gainditzen saiatzea eta hiru gaztetxook horixe egiten dute. Jauziak direla, eskuak erabili gabe hodian gaineratik gora joan... Hasi zirenetik bakoitza bere teknika hobetzen joan da eta bakoitzak badu bere espezialitatea. "Hainbat parkour mota dago, baina bakoitzak nahiago du besteengandik bereiztea", adierazi digute.

Diziplina mota horien artean, saiatzen dira "katuarena" egiten, hankak lehenengo pasa eta eskua gero, edo-eta lurrean jarri eta 360º graduko itzulia ematen. Ez dira horiekin bakarrik konformatzen, eta argazki sesioan bertan ikusi genituen autoetan esku bat jarri eta jauziak egiten, futboleko zutoin batera igo eta itzuli bat egin, hirurak jarraian, bata bestearen atzetan.



### Internet, informazio iturri

Interneten denetik dagoela gauza jakina da, baina hiru mutiko horiek sekulako etekina atera diote. Batetik ondo pasatu dute Youtubeko bideoak ikusten, eta bestetik euren jakintzarako primeran etorri zaie. "Twister taldekoek izugarritzko jau-

ziak egiten dituzte eta baita Team W-koek. Ikusgarria da", adierazi digu Imanol Beristainek, hiruretan parkourraren defentsa serioen hartzen duena. Arriskua egon badagoela badakite eta euren burua proban jarri dute, baina tentuz jokatu. "Behin joan ginen Andikano ingurura eta erre kara erortzeko aukera zegoen ondo egiten ez bazenuen bira", azaldu du Aitor Cuerdak.

### Gurasoen aholkuak

"Amak kontuz ibiltzeko esaten dit eta aitak berriz, gustukoa badut, jarraitzeko", dio Imanolek. Baina ez dute animo askoren premiarik, go-goan dutelako parkourraren bidez euren burua probatzen ari direla. Horrek segurtasuna ematen die.

### Elg\*pk taldea

"Litekeena da aitak elastiko bat egitea Elg\*pk gure taldearen izenarekin, logo propioa eta guzti", dio Imanol traceurak (parkourra praktikatzan dutenei horrelaxe deitzen zaie). Elgoibarren ere ezagutzen dute zaletu gehiago, eta pixkanaka-pixkanaka gero eta jende gehiago dago jakinaren gainean. Herri eskolan bertan ere jakimina eragiten du eta askok galdetzen diete zer egiten duten. "Parkour", erantzuten dute umiltasunez.

# BARREN

# KONTXAK



## Joko bat? Ez, eskerrik asko

Hirurek serio hartzen dute, eta ez dute joko moduan ikusten. "Serio hartzen dugu, ez tontoarena egiteko", dio Imanolek. Eta zentzu horretan aurreratu digu ez dela geldituko behar bezain beste ikasi arte. Eurek ez dute jackass egiten. "Barre egiteko ondo dago baina guretzat ez da denborapasa bakarrik", dio ziurtasunez.

Serio hitz egiten dute, ikasteko irrika dutelako, baina presiorik gabe. Jauziak egiten ikusi ditugun momentuan, irribarretsu daude baina euren urratsetan kontzentratuak, dena arazorik gabe atera dadin.

## Ingurunea errespetatu

Parkourra praktikatzeko duen batek ez luke axolarik gabe jokatu behar. "Bestela ez da traceur bat", erantzun digute. Zenbait lekutan ospe txarra badute ere, diziplina hori egiten dutenek ingurunea errespetatzen dute jendea aztoratu gabe. Benetako traceur batek lortuko duela dakienean ekingo dio jauziari eta ez du ondoan duenarekin lehiatuko. Parkourraren xedea mugimendu aske eta arina egitea da; atzera egin gabe. Parkourraren leloa izan eta irautea da, arriskurik hartu gabe. Baita norberaren mugak ezagutu eta erronkak betetzen joatea ere. Imanolek, Aitorrek eta Ikerrek eman diguten lezioa ere horixe izan da. Euren burua hobeto ezagutu ahala, parkourra gero eta serioagoa izango da. Gero eta erakargarriago edo sakonago.

2007-11-23

## euren hitzetan

Sorrera...

David Belle da parkourraren sortzailea. Haren aita suhiltzailea eta militarra izaki, "Georges Héberten Metodo Naturala" irakatsi zion: Armadan erabiltzen den diziplina gorputza bakarrik baliatuz, oztopo naturalak gainditzeko asmoz. Era berean, militarren entrenamenduan trebatu zuen eta azkenik, Davidek ikasitako hori bere herrira egokitu zuen, hiriarren tamainako bertsioa bat osatuz. Kalean sentitu zen eroso, eta hori dela-eta parkour talde bat eratu zuen.





## Uxue Alberdik finalera hel- tzeko aukera gutxi dauzka

Zapatuan Eskoriatzako kiroldegian jokatu zen Gipuzkoako bertsolari txapelketako finalaurreko kanporaketan fin aritu zen elgoibartarra. Bertsok txukun osatu zituen eta bukaera politak bota zituen. Ez zen, ordea, nahikoa izan. Jon Martinek eskuratu zuen finalerako lehen txartela. Uxue bosgarren lekuan sailkatu zen 484 punturekin eta aukera gutxi dauzka finaleran sartzeko.



## Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalera autobusa

Elgoibarko Izarra elkarteak Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalera joateko autobusa jari du. Autobuseko txartela eta sarrera eskuratzeko elkartera joan beharra dago azaroaren 26a baino lehen. Informazio gehiagorako, deitu 943741626 zenbakira. Finala abenduaren 16an izango da Donostian.

## Euskararen jatorriaz berba gingo du Josu Naberanek

Josu Naberan ikerlari eta idazleak euskararen jatorri eta sustraien inguruko hitzaldia emango du egunean, azaroaren 29an, AEKren 25. urteurreneko ospakizunak direla eta. Naberanek Europako mendebaldeko toponimiak ikertzean errepikatzen diren erroak aurkitu ditu. Hitzaldia Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da, 20:00etatik aurrera.

## Indiako txotxongiloak

"Animalien istorioak" izeneko txotxongilo emanaldia izango da Elgoibarko Herriko Antzokian, abenduaren 2an, Calcutako Dolls Theatre taldearen eskutik. Sketch bidez osatutako naturari buruzko lana da. Emanaldia 16:30etan izango da eta sarrerak egunean bertan salduko dituzte.

## Getxoko Komiki Azokak Ruben Arozena elgoibartarraren lanak erakusten dihardu

Ruben Arozena komikigileari omenaldia eskaintzen ari zaio Euskal Irudigileen Elkarte Profesionala, Getxoko VI. Komiki Azokan. Orain dela bi urte hil zen artista elgoibartarraren lanak erakusten ari dira astelehenaz geroztik. Lanak azaroaren 30era arte izango dira ikusgai Getxoko Villamonteko erakusgelan.

Ruben Arozena "Arotz" komikigile garrantzitsua izan zen. "Habe", "Habeko Mik", "Ipurbeltz", "Hemen" eta "Aizu" euskal aldizkarietzat margotu bazuen ere, "El Vibora-n" ere jardun izan zuen. Horrez gain, Italiako "Bronx" aldizkariarentzat ere lan egin zuen. Komikigintzako lan gehienak 90.eko hamarkadan sortu ondoren, arte munduan murgilduz joan zen, baina sekula ez zituen binetak alboratu. Irudigileen Elkarte kideen iritziz, Ruben Arozena gogoratu eta aldarikatu beharreko artista da. [www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net) gunean *Triski* eta *Bi Luma*-ren azken lanak ikus daitezke.



## Gu Ta Gutarrak taldea datorren barixakuan



Besteak beste, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Josu Zabalak osatzen duten Gu Ta Gutarrak taldeak Elgoibarren joko du datorren barixakuan, azaroaren 30ean. Proiektu horri buruz zera diote Iturriaga eta Elortzak: "Zazpi Eskalerekin egiten genuen antzeko zerbait egin behar genuen; baina zerbait ezberdina, zerbait bertsolariagoa, zerbait soilagoa". Kontzertua Herriko Antzokian izango da eta 22:15etan hasiko da. Sarrerak Kultur Etxean eskura daitezke aldeztu aurretik, 8,5 eurotan.

## KARAKATEKO XIV. IGOERA

### Iñigo Lariz elgoibartarrak ezustekoa eman zuen estreinako parte-hartzean txapela lortu eta gero

**A**zken bi aldietan Karakateko igoeran finenak ez dira herriko lasterkariak izan. Txirindulari ohi batek izan du azkenik txapela etxean lagatzeko ohorea. Iñigo Larizek lehenengo aldia zuen proba honetan eta bizikleta gainean duen ausardia, tontoretara egokitzea besterik ez du egin. Bera izan zen azkarrena 31'32" denborarekin, hotzari eta oztopo guztiei aurre eginez.

#### laz baino hobeto

Errekoretik urrun geratu zen txirindulari ohia, baina horrek ez zion meriturik kendu, hain ezagunak ez zituen bidezidorretatik bikain pasatu zen. Laz baino lau lagun gutxiagok parte hartu zuten pasa den zapatuan. Baina elgoibartarrek oro har ondo jardun zuten, hamar lehenengoen artean bost sailkatu baitziren; pasa den urtean baino bat gehiago. Lehen emakumea, eta bakarra, Pilar Arriola izan zen 42'10"ko denborarekin. Karakateko igoera sasoiko dago, bai gazte eta nagusiagoentzat. 17 urteko lagun bat izan zen parte-hartzaile gazteena eta helduena, 76 urteko azpeitiar bat. Bejondeiela!

Argazkiak, bideoak eta adierazpenak: [www.elgoiBAREN.net](http://www.elgoiBAREN.net)



#### SAILKAPENA

Postua	Izena	Herria	Denbora	Postua	Izena	Herria	Denbora
1	Iñigo Lariz	Elgoibar	31:32	18	Ibon Villanueva	Elgoibar	38:33
2	Mikel Albeniz	Donostia	31:57	19	Jon Peli Uriguen	Elgoibar	39:15
3	Jose Mari Fdz "Suso"	Elgoibar	32:28	20	Jorge Manuel Fdz. (Carrete)	Elgoibar	39:15
4	Igor Urionabarrenetxea	Aulestia	33:09	21	Iñigo Iriondo	Bermeo	40:12
5	Ibon Gabilondo	Elgoibar	33:24	22	Mitxel Zenarruzabeitia	Aulestia	40:24
6	Javier Gardoño	Anoeta	34:03	23	Javier Fernandez	Elgoibar	40:32
7	Igor Rey	Mendaro	34:25	24	Roberto Garcia (Txeto)	Elgoibar	40:37
8	Koldo Azkorbebeitia	Soraluze	34:32	25	Pilar Arriola	Elgoibar	42:10
9	Haritz Arrieta	Elgoibar	34:47	26	Gonzalo Saez	Elgoibar	42:28
10	Asier Arrieta	Elgoibar	35:27	27	Ignacio Perez	Elgoibar	42:45
11	Jose Antonio Ruiz	Elgoibar	35:42	28	Juan Mari Ansa	Elgoibar	44:04
12	Igor Ezenarro	Mendaro	36:37	29	Juan Jose Gurrutxaga	Elgoibar	44:48
13	Aitor Osoro	Elgoibar	36:55	30	Patxi Alberdi	Azpeitia	45:29
14	Sabin Zenarruzabeitia	Aulestia	37:30	31	Jose Mari Alberdi (76 urte)	Azpeitia	45:37
15	Gorka Tomos	Soraluze	37:32	32	Iker Torrientes	Soraluze	45:58
16	Gorka Aguirreazaldegui	Elgoibar	37:45	33	Jose Mari Elustondo	Elgoibar	47:10
17	Eduardo Uribe	Elgoibar	38:14	34	Xabier Elustondo	Elgoibar	55:57

## JESUS MARI ETXEBERRIA JUBILATUA

# «Jende gaztea animatu nahi dut parapentean salto egiteko»



*Jesus Mari Etxebarriarentzat adina ez da oztopo izan bere ametsak gauzatzeko. 73 urterekin parapentean salto egitera ausartu zen irailean, monitore batek lagunduta. Urrian, errepikatu egin zuen. Esperientzia horren nondik norakoak azaldu dizkio BARRENI.*

▶ **Aspaldiko ametsa zen parapentean salto egitea?**

Orain dela lau urte edo, lagun batzuekin egoten nintzen, Manolo Alvarez zenarekin eta bere arrebarekin eta. Parapentean ni ere eurekin joango nintzatekeela esaten nien beti, beti joateko eta beti joateko. Gero Manolo hil zen eta gauza gelditu egin zen. Hiru urte pasatu dira, eta azken San Bartolomeetan Maitek atzetik: "Jesus Mari, hartu dut ordua datorren zapaturako". Eta "bale", esan nion.

▶ **Horrelako kontuetan lehenago ere ibilia zinen?**

Sekula ez. Abioian bai. Baina horrelakorik ez behintzat.

▶ **Prestakuntzarik behar izan zenuen?**

Ez. Monitorearekin egin nuen salto. Mendiko botak erroteko eta txamarra polar batekin joan nintzen eta egon pixka batean haizea ondo jarri arte, kaskoa jantzi eta ospa! Handik hilebete batera ETBko ekipo bat etorri zen eta berriro egin nuen salto, eta entrebista-tzaileak eta kamerak ere salto egin zuten.

▶ **Bi bider egin duzu salto orduan. Beldurrik ez daukazu seinale.**

Beldurra beti dago. Abioian joanda ere. Baina pilotua joanez gero, ziurragoa izango da, eurak jakingo dute.

▶ **Nondik nora egin zenuten salto?**

Zarautz eta Orio artean. Bi kanpin badaude Zarautzen, ba goragotik. Ta-

laimendi uste dut daukala izena, ez dakit ziur. Eta hortik irten egiten duzu itsaso aldera pixkat, eta aprobetxatu haizea. Airean zortziak egiten ibili ginen. Monitorearekin batera joan nintzen eta bi pertsona asko dira ondo ibiltzeko, horregatik bajatu ginen Oriora. Bestela bat bakarrik ibiltzen denean, mendi ton-torrean bertan bajatzen da.

▶ **Denbora guztian itsaso gainean egin zenuten hegana?**

Itsaso eta mendi artean. Demaseko barrankoa dago han. Gero handik ir-tenda, hura han behean dago! Behin gelditu ginen horizontalean ia, parapentea eta gu, kolupio batean bezala!

▶ **Nola ikusten da dena goitik?**

Gertu-gertu. Ondo. Zenbatera ibili-ko ginen ba? Berrogeita hamar metro-ra? Desberdina da lurretik ikusita dena, barrankoa eta pendizak. Itsasoa ere desberdin ikusten da.

▶ **Zein izan zen momenturik zailena?**

Lehenengo aldiz, salto egiteko mo-mentuan. Goian ez. Gero jarrita joaten zara, ohol batean. Baina airean egon arte, ibiltzen bezala joan behar duzu. Gero ipini ipurdia eta kableari heldu. Bajatzeko pixkat zaila da. Lehenengo aldiz ondo bajatu ginen, baina bigarre-nean tankalatraba ibili ginen, haize pixkat zegoen-eta. Baina ondo.

▶ **Besterik esan nahi duzu?**

Jende gaztea animatu nahi dut pa-rapentean ibiltzeko. Badago taldea.

«Behin ia horizontalean gelditu ginen parapentea eta gu»



## ALKORTAKO II. IGOERA

# Bihar autodeterminazioaren aldeko antxixiketaldia izango da Mendaron

**A**utodeterminazio eta erabakitze eskubidearen alde mendi igoera antolatuko du Mendaroko ezker abertzaleak. Udaletxean hasi eta Alkorton bukatuko da. Santa Krutz, Antena eta Ixasuetatik igaroko da. Parte hartzaileak 10:00etarako daude deituta, proba hasi baino ordu erdi lehenago agertu behar baita. 4,7 kilometro dituen ibilbidean izena ematea doakoa izango da.

Iaz 22 antxixikarrik parte hartu zuten Josu Arregi azpeitiarrak irabazi zuen proban. Azpeitia, Elgoibar, Mendaro, Aulesti eta Markinako lagunek parte hartu zuten. Orenak 21:12 behar izan zituen. Azkenak tarte bera egiteko denbora bikoitza behar izan zuten gutxi gorabehera. Errekorra betetzea ez da helburua, goiz pasa aldarikapen



horien lelopean igarotzea baizik.

Alkortara igotzen diren guztientzat haizketako bat prestatuko dute aurten ere. Antolatzaileak gustura geratu ziren iaz jaso zuten erantzunarekin eta biharko proban ere harrera beroa espero dute.

## [ EMAITZAK ]

### ARETO FUTBOLA

Kenci 7 - Alegria 8 (Euskal liga)  
Elgoibar 7 - Goierri 4 (Jubenilak)

### FUTBOLA

Elgoibar 8 - Arizmendi 0 (Neskek)  
Elgoibar 1 - Urola 2 (Erregionala)  
Elgoibar 0 - Beasain 4 (Jubenilak)  
Portugalete 0 - Haundi 2 (3. maila)  
Ordizia 1 - Elgoibar 1 (Kadeteak)  
Mutriku 0 - Elgoibar 8 (Infantilak)  
Urola 2 - Elgoibar 2 (Infantil txiki)  
Eibar 4 - Elgoibar 4 (Alebinak)

### ESKUBALOAIA

Euskadiko txapelketa  
Urdaibai 22 - Tecnifuelle 21 (Senior neskek)  
Pneumax - Zarautz **Bertan behera** (Jub. mutilak)  
Tecnomeca 14 - Zarautz 41 (Kad. mutilak)  
Gipuzkoako txapelketa  
Arrate 7 - Comete 30 (Jubenil neskek)  
Jauja 19 - IMH Elgoibar 25 (Kad. neskek)  
Aterpe - Aloña **Bertan behera** (Infantil neskek)  
C. Astigarraga - C. Lili **B. behera** (Infantil neskek)  
B. Elgoibar 15 - Aloña Mendi 24 (Inf. mutilak)  
Arrate 16 - H. Txariduna 21 (Inf. mutilak)

### PILOTA

Lagunak 22 - Behar zana 2 15 (kadeteak)  
Lagunak 9 - Zazpi Iturri 2 22 (jubenilak)  
Lapke 22 - Lagunak 18 (nagusiak)  
Lagunak 9 - Ilumpe 22 (nagusiak)

## [ AGENDA ]

### PILOTA

**Barikua, 23**  
21:45 Lagunak - Antiguako (Jubenilak 1<sup>a</sup>)  
21:45 Lagunak - Olalde (Senior 2<sup>a</sup>)

### ESKUBALOAIA

**Domeka 25**  
11:00 C. Astigarraga - Urola (Inf neskek)  
**Zapatua 24**  
10:00 Aterpe - Aloña (Infantil neskek)  
11:00 H. Txariduna - Bergara (Inf. mut.)  
12:00 Bankoa - Arrate (Inf. mut.)  
18:00 Tecnifuelle - Ereintza (Senior neskek)

## Javi Gurrutxaga izan da Eibar Taldearen karteelko protagonista



Futbolak oraindik ez du galdu epikotasunik, bereziki talde txikiagoetan. Negozioaren diru goseak ez du irudimenarekin amaitu hortaz, ez behintzat Eibarko Futbol Taldean. Jarraitzaile fidelak eta nortasun propioa ditu talde historiko horrek eta Javi Gurrutxaga elgoibartarra agertu da kartelean. Begi-bistan geratzen da bere berezitasuna. "Eraztunaren Jauna" filmeko ideia bereganatu nahi izan du Ipuruan futbola zuzenean ikustea beste kontu bat dela adierazteko. Eibar eta Sevilla Atletico futbol partidarako erabili zuten jendearen arreta piztu nahian.

## ESKERTZA

2007ko azaroaren 19an hil zen **Maria Larrea Alberdi**ren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- ▶ Etxe handia salgai Plazan. Berritua. Prezio interesgarria. ☎ **619409273**
- ▶ Etxea salgai erdialdean. Hiru logela, egongela, sukalde, komuna eta trasteleku txiki bat. ☎ **637124868**
- ▶ Etxea salgai San Inazio kalean. 56m<sup>2</sup>. Ganbara. Dena kanpoaldeara begira. ☎ **687051789**
- ▶ Etxea salgai Erretxindin. 4 logela, sukalde berritua, eguzkitsua, ganbara, balkoi handia. Fatxada eta igogailua berritua. Altzariekin saltzen da. ☎ **628115677**

### ALOKAIRUA

- ▶ Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren edo inguruetan. ☎ **646844513**
- ▶ Bikote batek etxea hartuko luke alokairuan. ☎ **608008790**
- ▶ Bi logelako etxea alokatzen da. ☎ **645048110**
- ▶ Logela alokatzen da. ☎ **943741881**

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

- ▶ Garajea alokairuan Pista Beltzean. Sarbide erraza. 60 euro. ☎ **659386403**
- ▶ 24m<sup>2</sup>ko garaje itxia alokatzen da Urasandin. ☎ **943741527**
- ▶ Marradun garajea salgai Urasandin, Deba kalean. Madalako zubitik gertu. ☎ **658735769**
- ▶ 200m<sup>2</sup> eta 400m<sup>2</sup>ko pabilioiak salgai Sigman. Beheko solairuan. ☎ **619409273**
- ▶ Garajea alokatzen da Plaza Handitik gertu. ☎ **628764686**
- ▶ Garajea marraduna alokatzen da erdialdean, Santa Ana 2an. ☎ **943743427**

## [ AUTOAK ]

- ▶ Opel Corsa DTI sport autoa salgai. Egoera onean. ☎ **620578702**

## [ BESTELAKOAK ]

- ▶ Kardantxilo mistoak salgai. Kaiolarekin. 60 euro. ☎ **661225149**

## LANA

### ESKAERA

- Emakumea garbiketarako egiteko prest. ☎ **943742201 (13:00-17:00 edo 20:30etik aurrera)**
- Emakumea umeak edo adinekoak zaintzeko prest. ☎ **606169667**
- Ingeles klaseak ematen dira. Ingeles komertziala, maila guztiak. ☎ **696964069**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu, sukaldari, garbitzaile edo kamarera lanetarako prest. ☎ **943740367**
- Arratsalde edo gauz lan egingo nuke. Umeak zainduz, garbiketarako... ☎ **671476869**
- Mutila erakuntzan lan egiteko prest. Zulagailuarekin esperientzia. ☎ **678022125**

- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **943742575**
- DBH eta LH klase partikularak ematen dira. ☎ **943531654**
- Emakumea garbiketa lanak egin eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ **678939382**
- Emakumea garbiketa lanak egin eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ **699813826**
- Mutila harategian lan egiteko prest. ☎ **610913340**
- Matematika, euskara eta ingeles partikularak ematen ditu Lehen Hezkuntzan. ☎ **686197248**
- Neska euskalduna garbiketarako egiteko prest. ☎ **661101160**
- Neska garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **647840033/943531103**

- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **687362773**
- Emakumea garbiketarako egiteko prest. ☎ **943742201 (13:00-17:00 edo 20:30etik aurrera)**
- Euskara errefortzuetarako LH eta DBHko klase partikularak ematen dira. ☎ **943531654**

### ESKAINITZA

- Kamareroa behar da barran eta mahaiak zerbitzatzen lan egiteko. ☎ **635751642**
- Eibarko harategi baterako pertsona behar da. ☎ **630557889**
- Sukaldaria behar da. ☎ **943743196**

- Bitxiak, barruko erropak eta lurin produktuak saltzeko jendea behar da. Irabazi onak. Ez da esperientziarik behar. ☎ **607824892**
- Pintorea edo pintore aprendiz esperientziarekin behar da. ☎ **660522587 (Fernando)**
- Azpeitiko Hertz Klinikarako erizain teknikaria behar da. ☎ **943816736**

### ABISUAK

- San Inazio kalean txamarra bat aurkitu dut. Udaltzaingoa dago.
- Sergio Tacchini markako beturrekoak agertu dira Gloria okindegiaren aurrean. Jabea bertatik pasada dadila.



**ZAZPI INFORMATIKA**  
zazpi@telefonica.net  
Pedro Muguruza, 8 behea Tel./Faxa: 943 74 37 87



**Softlan**  
analisi & programazioa  
Antonio Arillaga, 1  
Tel.: 943 74 81 05  
info@softlan.biz  
www.softlan.biz



**On informatika**  
Upaiz Zaharra 6  
943 741 846  
www.oninformatika.com  
on@oninformatika.com



**MICRO SYSTEM INFORMATIKA**  
DENDA  
Lerun Industrialdea, 6  
ZERBITZU TEKNIKOA  
Jausoro Plaza, 3  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 74 02 40  
E-posta: info@elgonet.es

## [ZORIONAK]



▶ Zorionak, **Iker**, aitatxo, aitona eta amonaren partez eta ikastolako langutxo- en partez.



▶ Zorionak, **guapa**, zure "kafeko" lagunen partez. Urte askotarako.



▶ Zorionak, **Izaro**, gaur 3 urtetxo bete dituzulako. Musu bat etxekoan eta lehengusuen partez.



▶ Zorionak, **Ivan!** Morrosko bat eginda zaude urtebete eginda. Muxutxoak Tamara eta Aidaren partez.



▶ Zorionak, **Julen!** 10. urte- betetzean, oso ondo pasa ezazu larunbateko festan, guraso eta anaia Anderren partez.



▶ Zorionak, **Andrea**, 11 urte egitean, zure familia eta bereziki zure gurasoen partez.



▶ Zorionak, **Yoli izebal** Uraitz eta Garaziren partez.



▶ Zorionak, **Ioni!** Musu handi bat familiaren partez eta bereziki Iratiren aldetik.



▶ Zorionak, **Josu**, 6 urte bere dituzulako. Musu handi bat familiakoan partez.



▶ Zorionak, **Naroa**, muxu erraldoi bat ikastolako laguntxo guztien partez.




▶ Zorionak, **Amaia**, 14 urte bete dituzulako, guraso eta ahizpa Cristinaren partez.



▶ Zorionak, **Oxell!** Gaur urtetxo bat egin duzulako, etxekoan partez.




▶ Zorionak, **Nerea**, etxeko txintxoena, hilaren 27an 6 urte egingo dituzulako, guraso, aitona-amonen eta birramona Mariaren partetik.



▶ Zorionak **Alain** eta **Aitzol**. Hilaren 23 eta 25, 2 eta 7 urte beteko dituzuelako. Muxu handi eta potolo bat etxeko guztien partez.



▶ Zorionak, **Ruben eta Pablot** 8 eta 13 urte bete dituzulako. Musu bat gurasoen, Soralezeko eta Leridako familien partez.



▶ Zorionak, **Juancar, Koldo eta Nora**, oso ondo pasatu eguna familiakoan partez eta bereziki Ibonen aldetik.

## I. URTEURRENA

2006ko azaroaren 22an hil zen, 81 urte zituela,

**Sotera Mendizabal Etxaberen** oroimenez I. urteurreneko meza izango da, igandean, azaroaren 25an, eguerdiko 12:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.





# Zerbitzuak



## [ OKINDEGIA ]



25 igandea DOÑA MERCEDES



## [ FARMAZIAK ]

- GUARDIA** 24 ORDUZ
- 23 Fernandez
  - 24 Yudego
  - 25 Yudego
  - 26 Zabaleta
  - 27 Etxeberria (*Erosario*)
  - 28 Ibañez
  - 29 Yudego
  - 30 Etxeberria (*Santa Ana*)

\* *Beiti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

### KANPOKO FARMAZIAK

**IBAÑEZ**  
Rekalde, 1 Soraluze.  
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**  
Herriko enparantza 4, Garagarza.  
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**  
Kalebarren, 9 Soraluze.  
Tel: 943 75 13 84



## [ TELEFONOAK ]

### OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Larrialdiak	943 46 11 11
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
DYA (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

### UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Hiri-gintza	943 74 43 84
Epaitegia	943 74 16 30
Hazienda	943 74 44 14
Mendaroko Udala	943 03 32 82
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaltzeara	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94
Debemen	943 74 40 67

### GARRIAOK

Eusko Tren	943 74 04 42
PESA	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98
Bizkaibus	902 222 265

### BESTELAKOAK

BARREN astekaria	943 74 41 12
Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gazte Informazioa	943 74 14 61
KZ gunea	943 74 88 28

### ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

### IKASTETXEAK

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
Institutua • Arreiturre	943 74 80 19
• Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

## [ 24 ZAPATUA ]

### 12:00 GAZTE OLINPIADAK

Herriko gazteak Madalan elkartzeko deia egin dute Elgoibarko gazte batzuk.

### 13:00 EAE-ANV-REN EKITALDI POLITIKOA

Herriko plazan argazkia aterako dute.

### 16:00 KINA SAIOA

Jubilatuen egoitza.

## [ 25 DOMEKA ]

### 12:00 JUBILATUEN ASTEA

Meza.

### 16:00 DANTZALDIA

Gelatxo orkestrarekin.

## [ 26 ASTELEHENA ]

### 17:30 JOSTAILUEN ERAKUSKETA

Kultur Etxean ikusgai dagoen Jostailuen erakusketa eta jostailuak birziklatzeko tailerra bisitatzeko azken eguna. 17:00etatik 20:00etara bitartean.

## [ 29 EGUENA ]

### 15:00 BERTSO SAIOA

Uxue Alberdi eta Ander Lizarralde ariko dira hizketan eta bertsotan AEK euskaltegian, 17:00ak bitartean. Gaiak entzuleek jarri ahal izango dute.

### 20:00 HITZALDIA

Josu Naberanek euskararen jatorri eta sustraiari buruz hitzegino du. Kultur Etxean.

## [ 30 BARIKAKUA ]

### 22:15 GU ETA GUTARRAK

Unai Iturriag, Igor Elortza. eta Josu Zabala. Herriko Antzokian.

## ZINE KARTELDEGIA

### ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN



#### «Promesas del Este»

23, barixakua: 22:15

24, zapatua: 19:00-22:15

25, domeka 19:00-22:15

26, astelehena 21:30

#### «Lassie»

25, domeka: 16:30

«Conversaciones con mi jardinero»

29, eguena: 21:30 (Z.K.)

### EIBAR, UNZAGA

#### «Beowulf»

24, zapatua: 17:00-19:30-22:15

25, domeka: 17:00-19:30-22:15

26, astelehena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.



San Roke 1. Tel.: 620 13 59 58

EGUNEKO MENUA, PINTXOAK, TXOKDLATEA TXURROEKIN, MERIENDAK,...

**murrplastik**

- KABLEENTZAT KATEAK
- IDENTIFIKAZIO SISTEMAK
- KABLEENTZAT PLAKAK
- TUBOAK ETA ERRAKOREAK

Murrplastik SL - Ubarraza 78 - Pabiloia 34, Poligono 27  
20014 Donostia - Telefonoa 943 44 48 37 - Faxa 943 47 28 95

## SINOPSISIAK

### «Promesas del Este»

Zuzendaria: David Cronenberg.

Antzezleak: V. Mortensen eta Naomi Watts.

Errusiako mafieren erretratu gordina egiten du Cronenbergek Britainia Handiko hiriburuko jate-txe baten inguruan murgiltzen dira gainbetera betean dauden pertsoniak. Emagin batek nerabe baten egunerokoa jasoko du eta ikertzen hasiko da nola eta zergatik hil zen. Horetarako erusiar familia bati aurre egin beharko dio atzera bueltarik izango ez duen afe-ran. Haren familia nor den ezagutu arte ez du geldizeko asmorik, baina mafiako partaideek beste asmo zatar batzuk dituzte.≠

# Atzera hegira



**1966**. urteko erretratu zahar hau **Juanito Gorostizak** laga digu. Garai hartan C.D. Elgoibarrek tonbola jartzen zuen parrokia aurean klubarentzako dirua ateratzeko. Arrakasta handia izaten zuen tonbolak. Herritar mordoak gerturatzen ziren boletoak eroatera eta sariak ez ziren txarrak izaten. Argazkian ikus daitezke tonbolan sari batzuk zintzilikatuta. Urte hartan, Pepe Blanco eta Carmen Morell abeslari famatuak Odeiko ikuskizun batean hartu zuten parte. Handik ateratzean, tonbolan zegoen giro bikaina ikusi eta bertan gelditu ziren boletoak saltzen. C.D. Elgoibarrentzat laguntza bikaina izan zen. Gogora ditzagun zeintzuk ageri zaizkigun argazkiak:

Ezkerretik eskumara: **Javier Eizagirre (†)**, **Juanito Aizpitarte (†)**, **Rafael Rodriguez**, **Jesus Bilbao (†)** (C.D. Elgoibarreko presidentea), **Pako Egaña (†)** eta **Antonio Herrero**.



*Lorea Etxabe Azkue*

2003ko azaroaren 26an hil zen  
30 urte zituela

*Edur zuritxan hazitxako  
lore gorrixa ziñan.  
Urtu eraitxen zendun  
inguruko hotza,  
eta bedarra hazi erain.*

*Ez dogu gehixao  
zure berua igarriko,  
baña hementxe gerauko da  
zure arnasia aztarnia,  
botatako sustraixen gañian.*

**Zure familia eta lagunak**

**Bere alde urteurreneko meza izango da, astelehenean,  
hilak 26, iluntzeko 19:00etan San Bartolome Parrokian.**

IV. URTEURRENA





# Gremioen GIDA



## Aroztegiak

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 943 74 31 16

### Etxekit

Sukaldeak eta bainuak  
Antonio Arrillaga, z/g  
☎ 943 74 43 47

### Ezenarro arotzeriela

Era guztietako arotz lanak  
☎ 653 707 837

### García

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### Imar

Aroztegia  
☎ 943 53 14 71  
☎ 646 90 55 64  
☎ 609 05 49 78

### Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90

### Soraluze

Leihoak-Armairu enpotratuak  
Santa Ana, 8  
☎ 943 74 36 34

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31



## Indusketa lanak

### Lekunberri Indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak  
Lekunberri baserria  
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32  
koldo@movistar.com  
www.excavacioneslekunberri.com



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Ermuaran Bide, 11  
☎ 943 53 18 47  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Javi

Erretxindi, 1 behea  
☎ 659 772 932

### Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilioia  
☎ 943 74 28 80

### Pagoaga

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 • MENDARO  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Zaldúa

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxa: 943 53 18 25

### Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ipintza

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40



## Proiektu eta erreformak

### Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)  
☎ 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Elbar)  
☎ 943 200 698



## Elektrizitatea

### Aramar

Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Killimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
MENDARO  
☎ 659 934 964

### Pelo

Herriko Enparantza, 5 behea  
MENDARO  
☎ 943 03 35 35/660 791 723

### Urzelal

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76



## Igeltseritza

### Antonio Markez

Urasandi, 24  
☎ 943 74 34 18

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Autoentzako tindatutako kristalak

### Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilioia  
☎ 943 74 30 94



**GU TA GUTARAK**  
bertso berriak eta lagun zaharrak

**Azaroak 30**  
**22:15ean**  
**Herriko Antzokian**



**Partaideak:**

**IGOR ELORTZA:** bertsolaria

**UNAI ITURRIAGA:** bertsolaria

**JOSU ZABALA:** doinu guztien egilea.

*Soinu txikia, akordeoia, teklatuak.*


**AITOR RUBIO:** gitarra akustikoa eta elektrikoa

**XANPE:** perkusioa, alboka, aho soinua.

# Animalien istorioak

**Indiako Dolls Theatre**  
**txotxongilo taldea**

**Abenduak 2, igandea**  
**16:30ean**  
**Herriko Antzokian**



Tolosako  
**titirijai 07**

25. Nazioarteko

Txotxongilo

Jaialdian

partehartzaileak



Eusko Jaureritza



SAREA



Kultura sála



Foru Aldundia